

BERRIKETA GUTXI

Bego



IMANOL EPELDE
PAGOLA
27zapata.eus

Alferkeria ez du barkatzen efikaziaren, produktibitatearen, egin beharraren gizarteak. Dena da eraiki, erosi, ikusi, suntsitu, prestatu. Eman, ekin, ikasi, ibili. Goroldioa haziko zaigu, bestela, beso azpian.

Pozik legoke Axular. Bere predikuak azken bururaino eraman ditugu. Ez dago egonean egoterik, ez dago gauzak gero egingo ditugula esaterik: Gero dioenak, bego dioelako.

Pertsonak egindako gauzen zerrendaren arabera baloratzen ditugu: curriculumean, Wikipedian, Stravan. Ordulariak pausoak kontatzen dizkit; Goodreadsek eta Paperjalek irakurritako urteko liburu kopurua; sortzailak kontzertuak, emanaldiak, data berriak iragartzen dizkit, une oro. Ni neu ere, sarri, "zenbat" horien menpe bizi naiz: egiten dut, beraz banaiz.

Gutxietsita daukagu egon aditza: norbere buruarekin egoten jakitea, umearekin lurrean esertzea, gurasoen ondoan isilik egotea, lagun bati arreta ematea. Egoten jakitea ez da kontatzen, ez da txalotzen, ez da zenbatzen. Eta, hala ere, horrek markatzen du bizi-kalitatea.

Oraintxe irakurri dut Agurtzane Gomez Gaztezuloko zuzendariak, hiltzorian zela, idatzitakoa: "Justu ze egunetan eta zein ordutan, gutxi gorabehera, hilko naizen jakin nahi dutenak ere badaude... badakizu, umeak, lana eta gauzak antolatzen joateko, baina behar dudan guztirako daude...". Amaitzen du esaten asmoa ez zela txarra, babesa agertu nahi ziotela denek, "baina, nire bizitzako azken egunen formula 'biziraun' + 'agendak kudeatu' + 'mezuak erantzun' bihurtu da, eta ez nuen hori nahi".

Handia litzateke, handiena akaso, hil ondoren norbaitek guri buruz esan ahal izatea: "Ondo egoten zekien". Martxa honetan, hiltzen garenean baino ez baitugu izango erremedio-rik: egoteko. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com

